

# Denbora-

## 1 Hizki salda

Iratiren amona prestatzen ari  
den hizki saldako osagaien  
artean lapikoko hitzak daude.  
Ikusten al dituzu?





Erantzunak: 3.-Sasola-  
indarra / pelikula-film /  
aukerako-apropos / hornitu-  
jantzi / galera-kalte. 4.-A



## 2 Kopiatu laukiz-lauki



Marrazten trebea zarela? Ez zaizu asko kostako, beraz, margoak hartu eta  
behean ageri den marrazkia laukiz lauki kopiatzea.



# -pasak

## 4 Puzzlea

Aritz eta Ander puzzle bana egiten ari dira. Konturatu gabe piezak nahastu dituzte. Lagunduko al diozu Aritzi puzzlea osatzeko falta zaion pieza topatzen?




## 3 Lotu sinonimoak

Anek gozokiak erosi ditu etxe azpiko gozoki dendan. Horien artean zeintzuk dira berdinak?

## Jolasa

### Telegrafoa

Garai batean komunikatzeko erabiltzen zen tresna da telegrafoa. Oraingo honetan, jokalariek izango dira telegrafoaren lana egingo dutenak. Hala, mezua bidaltzen duenaren eta jasotzen duenaren arteko bidea egin beharko dut. Nola? Eskua estutuz. Mezua dagokion lekura ez dadin iritsi saiatu beharko du biribilaren erdian dagoenak. Zenbat eta lagun gehiago jolastu, jolasa dibertigarriagoa izango da.



**1** Jokalarietako bat erdian jarriko da, eta besteek inguruan biribil bat osatuko dute. Jolasa hasten duen jokalariek zera esango du: «Bip, bip mezu bat bidali nahi diot...». Ondoren beste jokalarietako baten izena esango du. Helburua, mezua harengana iristea.



**2** Baina, zein da mezua? Bada, eskua estutzea. Hori bai, ahalik eta modu ezkutuenan egin beharko du. Gainerako jokalariek ere hala egin beharko dute. «Jaso dut mezua», esango du hartzaileak mezua jasotakoan.



**3** Hartzailearengana iritsi aurretik mezua norabidea asmatzea. Horixe izango da erdian dagoen jokalariaren zeregina. Norbait eskua estutzen harrapatzen badu, hura jarriko da erdian.